

Helburuen erresuma edo erreinua

Moralitatearen erresuma ideala da, eta bi modu daude bertan egoteko.

Batetik, aginduen menpe egonik, eta bertan kideak kokatzen dira. Borondate huts hutseginkorra edo mugatua dute, beraz, euren borondatea determinatu daiteke heteronomoak diren aiharren bidez. Agintera erabiltzen da betebeharez jokatzeko lege moralari zor zaion errespetuagatik. Borondateak bere burua agindu moduan errespetatzen du.

Borondate huts hutseginkorra absolutuki ona den borondatea da. Autonomoki edo heteronomoki joka dezakegu bertan, horregatik ezin dugu analisiaren bidez inperatibo kategorikoa ondorioztatu bertan, bi bide baitaude. Ezin dugu ondorioztatu ez dugula enpirikoki jokatu, izan ere aukera dago heteronomiaren bidea hartzeko.

Bestetik, helburuen erresuman aginduen menpe egon gabe koka gaitzke, eta bertan subirauak daude. Borondate huts hutsezina kokatzen da bertan, Jainkoari dagokio, borondate zaindua da. Borondate huts hutsezina autonomoa da beti, horregatik ez da agindua behar eta, beraz, betebeharren kontzeptuak ez dauka zentzurik, izan ere, ez dago ekiteko beste aukerarik, autonomoki jokatea da bide bakarra. Borondate huts hutsezina autonomoa da, eta autonomiaren printzipioa inperatibo kategorikoa da, analisiaren bidez ondoriozta genezake, esan bezala, ez baitago heteronomoki jokatzeko biderik. Bat-batekoa izateaz gain, nahitaezkoa da; halere, nahitaezkoa izan arren, Kanten aburuz, askatasuna litzateke, askatasuna autonomia delako, nork bere buruari legea ematea.

Helburuen erresumako printzipio bateratzailea lege moral unibertsala da, hau da, inperatibo kategorikoa, kategorikoki agintzen duena egoera edozein izanda ere.